

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Julio Goitia Iztueta

*Altzaga,
Gipuzkoa
(1925-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Matxinean jaioa, aitaren jaiotetxean. Baserritarrak zituen gurasoak, Domingo eta Maria. Ama Lazkaoko Albitxu Goikoa baserrikoa. Hamar senidetan zortzigarrena, gogor ekin zion lanari gazte-gaztetatik; eta, sei urte bete zituenerako, akolito izendatu zuten herriko eliza eta ermitarako. Oso fededuna izanik, apaiz sartzeko grina izan zuen berehala, baina "familia onekoa" ez izanagatik, muzin egin behar izan zion, tristuraz, bere nahiari. Hala, hamabost urte betetzearekin batera, Ordiziako Irastorza ebanisterian hasi zen lanean soldaduskara joan zen arte. Bueltan, biltegia ireki zuen bere anaietako batekin, eta bertan aritu zen hamabost urtez lanean. 31 urterekin ezkondu zen Miren Auzmendi Garmendia ataundarrarekin eta elkarrekin ireki zuten Eguzki taberna Urdaneta kalean. Jubilatu bitarteko lanak barraren atzean egin zituen. Ordiziako Odol Emaileen Elkarte sortu zuen 1966an, Patxi Gabilondo Lasa eta Iñaki Imaz Mazkianekin batera. Ordiziako Gazta Kofradiako kide ere bada haren sorreratik.

Zintak

ALG-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2012-01-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com